

## ERAKUSLEIHOA

SAIAKERA

### 'Euskal kanta- gintza berria'

Pako Aristi. Erein. 320  
or: 17 euro.

### Kantariei, maitasun handiz

Pako Aristik hogei urte zituen "munduko ilusio guztia eta lanerako gogoa", euskal kantagintzari buruzko liburu bat egitea proposatu ziotenean. Ia 25 urte ziren Mixel Labegueriek lehen diskoa atera zuenetik, euskal kantagintzak sozialki eragin handia zeukan, gure kultura-oinari sendoenetakoa zen, kantari berriak aurrekoen transmisioa bermatzera zetozen, eta egoera dinamiko horren argazki bat egin nahi izan du Aristik liburu honen bitartez. "Emozio goseaz asetzen jakin zuten kantarienganako maitasun handi batekin" idatzia.

LITERATURA

### 'Zendabalitz'

Erika Elizari. Elkar. 128  
or: 15 euro.

### Itxura eta errealitatea ez dira gauza bera

Parisko Charles de Gaulle aireportutik Loiu-kora doan hegaldia. Barruan hamaika bidaiari eta beste hainbat istorio: lan-elkaritzaketa batera joan eta haurdun dagoela ezkutatu duen exekutiboa; barruko bulkada suntsikorrei aurre egin behar dien pilotua; oportetan bakarrik joan eta aspertu besterik egin ez den neska gaztea... Eleberririk ez duen Erika Elizarik igartzat sariari esker idatzitako bere estreinaldi honetan: nobela labur, fresko eta dibertigarria, gizon-emakumeen baitako kontraesanekin eta gizartearen estereotipoekin jolas egiten duena.

## ZALDI EROA

